

# Manex Goihenetxeren oroitzapenetan

**Pruden Gartzia Isasti**

**Euskaltzain urgazlea eta UEUko Historia sailekoa**

Manex Goihenetxek ohorezko toki bat du euskal historialarien artean. Batetik Udako Euskal Unibertsitatearen (UEU) sortzaileetarikoa izateaz gain, Historia saileko kide kementsua izan zen, hartara Historialaritza akademiko-unibertsitarioaren eta euskararen arteko zubiak eraikitzen berebiziko papera jokatu. Bestalde, euskaltzale ezagun eta militantea izan zen, besteak beste, Seaskako sorreran eta garapenean parte erabakigarria hartuz. Artikulu honetan haren historialari-lanak iruzkintzen dira, euskal historiografian kokatuz, bereziki hiru ildo hauetan: ikuspegi nazionalean, hizkuntzaren hautuan eta komunitate akademiko-unibertsitarioarekin izandako harremanean. Eranskin gisa haren bibliografia akademiko osoa eskaintzen da.

**GAKO-HITZAK:** Euskal Herria · Historia · Intelektualak.

Manex Goihenetxe occupies a place of honor among the Basque historians. On the one hand he was one of the founders of UEU, and also an active member of its department of history, so he contributed to the building of bridges between the academic-university History and the Basque language. On the other hand, he was well known as a militant Basque expert, who took part in the rise and development of Seaska. In this article it is shown how his releases as an historian fit in the framework of the Basque historiography, mainly in these three axes: the point of view of a nation, the linguistic choice and the feedback with the academic-university community. As an annex, all his academic bibliography can be consulted.

**KEY WORDS:** Euskalherria · History · Intellectuals.

*Jasotze-data:* 2009-12-14. *Onartze-data:* 2009-12-30.

Bost urte pasatu dira Manex Goihenetxe hil zenetik, baina haren oroitzapena ez zait joan gogotik. Lerro hauen bitartez haren oroimenari omenaldi txiki bat egin nahi nioke, eta era berean zuei azaldu zer den hark guri utzi ziguna eta zergatik den garrantzitsua oraingoz ere haren oroitzapenari erreparatzea<sup>1</sup>.

Manex hil eta urtebetera Joseba Agirreazkuenagak idatzi zidan, azalduz haren omenezko liburu bat egiteko asmoa zuela eta nire laguntza eskatzen zuela; konkretuki, Manexen bibliografia akademikoa egiteko agindua eman zidan. Berehala hasi nintzen lanean, Manexen ikasle eta lagun handia izan zen Peio Etxeberri-Ainxarti laguntza eskatuz. Lana ez zen oso zaila suertatu: Manexek berak egin zuen bere lan akademikoen zerrenda bat, haren ordenagailuan atzeman zutena; Peiok zerrenda hura igorri eta ni haren gainean hasi nintzen lanean; horrelako kasuetan ohikoa izaten denari segituz, datuak banan-banan egiaztatzeari ekin nion eta, era berean, falta ziren/zitezkeen datuak bilatzeari. Handik lau hilabetera lana bukatua zegoen: beti gertatzen den bezala, lan batzuk falta ziren eta beste pare bat egiaztatzea ezinezkoa egin zitzaidan: ziur aski argia ikusi gabe nonbait agortu ziren noizbaiteko artikulua, garrantzi handirik ez zutenak, edonola ere. Zerrenda txukundu, hitzaurretxo bat idatzi eta Peiori eta Josebari igorri nien, lehenak haren berri izan zezan, bere laguntzagatik eskerrak emanaz; bigarrenak argitara zezan. Baina berehala, eta niretzat guztiz modu ustegabea, jaso nuen Joseba Agirreazkuenagaren erantzun etsigarria:

Pruden: lasai hartu. Egia esateko, ez dut arrakastarik izan. Lan gutxi iritsi dira eta hortxe nabil berriak lortu guran, liburu txukuna egiteko. Iparraldetik, J.L. Davantek zerbait idatzi dit eta artikulua bakana. Zure inguruan, artikuluren bat argitaratzear baten batek balu, onartuko nuke. Dena dela, argitaratu egingo dugu. Martxoko bileran, eskuartearen dudan guztia aurkeztu nahi nuke eta Vasconia aldizkariako hurrengo alean argitaratu.

Eskerrik asko zure laguntza eta partaidetzagatik.

Joseba<sup>2</sup>

Beste hiru urte pasatu dira ordutik, baina Josebaren asmo kartsu horrek oraindik ez du argirik ikusi. Eta gaur egun ere, horretan gaude: Joseba ia-ia bakarrik utzi dugu Manexi dedikatu nahi izan zion omenezko liburuan<sup>3</sup>.

Egia esan, ez dirudi *Vasconia* aldizkaria ere azken urte hauetan bere momenturik gozoenean bizi denik<sup>4</sup>, ezta, bide batez esanda, Eusko Ikaskuntzaren Historia saila ere. Historia akademikoa bera ere apalaldi luze eta iraunkor batean sartuta dago mundu osoan, tarteka-tarteka baina errepikakortasun nabarmen batez handik eta hemendik behin eta berriro entzuten dugun bezala. Ez, benetan ez gaude eztatiko aro batean, Historia akademikoa krisialdi luze batean sartuta baitago aspalditik, hemen eta kanpoan.

1. UEUko Historia sailak antolatutako Historialari Euskaldunen V. Jardunaldietan irakurritako txostena, Gasteiz, 2009ko abenduaren 13an.

2. Joseba Agirreazkuenagaren komunikazio pertsonala, 2006ko otsailaren 9a.

3. Bibliografia hori artikulua honen eranskin gisa gehitu da.

4. Azken zenbakia, 35.a, 2006an atera zen; geroztik ez da beste zenbakirik argitaratu.

Halaber, Manexen liburuaren kasuan kontuan hartu behar da berau hil zelarik burutu gabe zeukala bere bizitzako lanik garrantzitsuenak: Euskal Herriko Historia orokor bat, hainbat tomotan argitaratu behar zena. Lehena 1998an agerturik, laugarrena 2002an argitaratu zen eta hil zen unean franko aurretua zeukan bosgarrena, XIX. mendea tratatu behar zuena (1804-1914)<sup>5</sup>; badirudi haren Iparraldeko lagunek lehentasuna eman ziotela bosgarren tomo horretarako falta ziren kapituluak osatzeari, horretarako zenbait historialariren laguntza eskatuz. Hurrengo urtean atera zen, hots, 2005ean<sup>6</sup>. Neurri batean esan dezakegu, nolabait, tomo horrek bete zuela Manexen oroitzapenezko liburu baten lekua eta, hartara, proiektu horretan erabili ziren indarrak gero eskas izan zirela Agirreazkuenagaren proiektuari ekiteko.

Eta horrela, ia-ia konturatu gabe Iparralde eta Hegoaldearen arteko zatiketaren arazora heldu gara berriz ere, ia-ia ustekabeen. Zeren Iparraldean, nola edo hala, lortu zuten haren omenezko liburu bat argitaratzea, formalki horrelakoa ez bada ere; baina Hegoaldean saioak porrot egin zuen. Beraz, berriz ere esan beharko dugu ezinezkoa dela Euskal Herri osoa bere baitan hartuko duen ekimenik burutzea. Ezinezkoa ez dakit, franko zaila bai, kasu honetan ikusi berri dugun bezala.

Eta zer pentsatuko zuen Manexek berak arazo honetaz? Zeren jakina da Manex Goiheren abertzale oso-oso zela, hau da, Euskal Herri osoari begira bizi zen eta bizi nahi zuen ikertzaile eta herritarra. Areago, haren azken urteetako lan nagusia Euskal Herri osorako historia bat idaztea zen. Zer balantze egingo ote zuen berak bost tomoko liburu horretaz, haren garapenez eta ustekabeko bukaeraz?

## II

Ez dut lortu aipu hau inon egiaztatzea, baina nire oroimenaren txoko batean gordeta daukat aipagai dugun liburuaren sorreran paper biziki garrantzitsua jokatu zuela Jean-Louis Miatiak, zeina Manexen lagun mina zen eta, tamalez, euskal kulturako eragileen artean hain ohikoa den bezala, bere bizitzako unerik batean denboraldi bat gartzelan pasatu zuen terrorismoarekin zerikusirik izatearen akuzaziopean. Nire oroimenaren arabera, nonbait, gartzelatik atera ondoren Manexekin izandako elkarriketa luze batean lortu omen zuen bera konbentzitzea proiektu horri ekiteko, alegia, Euskal Herri osoaren historia bat, ikuspegi abertzale batetik idatzia baina mota guztietako mito abertzaleetatik libre. Berriz errepikatuko dut, azpimarratzeko: Euskal Herri osoa, ikuspuntu abertzalea, baina abertzaleen mitotatik libre. Hots, historia zinez kritikoa, historialaritzak akademikoaren tradiziozko ohoragarrienari atxikia, baina herriaren zerbitzura pentsatua. Gogoan daukat, gainera, Manexek Euskal Herriko gazteriarri dedikatu nahi ziola lana, beren historia ezagutzeko eta haren jabe eginez herriari zerbitzu handia egingo ziotelakoan. Baina historia kritikoa nahi zuen Manexek, ez mito abertzaleen bilduma bat.

---

5. Dirudienek, hori izango zen azkena.

6. Hau da kolaboratzaile zerrenda: Peio Etxeberri, Peio Etxeberri-Ainxart, Mikel Epaltza, Oscar Alvarez Gila, Jose Maria Goñi Galarraga, Piarres Xarritton, Xabier Itzaina, Battita Larzabal, Emilio Lopez Adan, Jean Haritzelhar, Jean-Louis Davant, Fermin Arkotxa, Claude Larronde eta Jacques Garat.

Eta honekin Manexen izaeraren beste ezaugarri batera heldu gara: abertzalea bai, baina haren abertzaletasuna gizartearen azterketa kritikoa oinarritu nahi zuena, ez ameskeria boluntaristetan. Hori da, ziur aski, historialari bezala egin zuen lana hobekien definitzen duena. Baina geroago itzuliko gara arazo honetara. Orain, ekin diezaigun liburuaren azterketa labur bati.

Liburu sail horrek desafio bati baino gehiagori erantzun nahi lioke, baina hau da, dudarik gabe, nagusia: posible ote da Euskal Herri osoko Historia bakar bat idaztea? Galdera hori, jakina, zentzu teknikoan interpreta daiteke, hala nola historialari espainiar, frantziar edo euskaldunek teknikoki eztabaida dezaketen posible ote den, adibidez, Patagoniaren Historia bat idaztea, zein liratekeen proiektu horren aldeko eta kontrako arrazoiak, mugak, ezaugarriak, eta abar. Eztabaida biziki teknikoa, lasaia eta adiskidetsua izan daiteke, prefosta, Patagoniari buruz ari garen neurrian. Baina ondo baino hobeto dakigu denok arestian aipatu ditugun historialariek ez dutela berdin jokatu Patagoniaren orde Euskal Herriaz ari bagara. Eta hor berehala sentituko dugu gainean, altzairuzko harlauza bat bezala, historialari askoren baieztapen dogmatiko hau: euskal nazioa ez da existitzen, Euskal Herria abertzaleen asmazio hutsa da, beraz, Historia faltsifikatzen ari gara. Eztabaida, bistan da, ez da teknikoa, politikoa baizik, nahiz eta historialari horietako askok berebiziko aiherra erakutsi beren iritzi politikoak zientzia hutsaren inperatibo kategorikoaz mozorrotuta aurkezteko.

Ez da dudarik Manexek sakon sentitu zuela presio hau, baina gai izan zen, inor baino hobeto nire uste apalean, errazkeriaren tentazioari eusteko, hau da, bazekien historialari horiei espainiar edo frantziar nazionalismoa leporatzea ez zela bidea. Norberaren kontzientzia lasaitzen lagun dezake, bidezkoa eta beharrezkoa izan daiteke, baina Manexek bazekien hori ez dela bidea. Zergatik? Besteen akatsen salaketak ez dituelako gure arazoak konpontzen. Euskal Herriaren existentzia, euskal nazioarena nahi baduzue, ez da ebidentzia bat, begi-bistan dagoen oinarritzko datua, hala nola euskara hizkuntza bat eta bakarra dela ia-ia ebidentzetat jo dezakegun. Aitzitik, euskal historian geuk aurkitu eta arrazoitu behar dugun zerbait da. Euskal Herria langintza bat da.

Beraz, Manexen erantzuna ez da problema ukatzea eta kontrarioen inkoherentziak edota gabeziak salatzea. Aitzitik, liburu honetako bost tomoetan behin ere ez dugu aurkituko ez baieztapen abertzale biribilik, ez espainolisten edo frantxi-manten salaketarik. Horren orde, behin eta berriro azpimarratzen ditu langintza horren zailtasunak eta Euskal Herriaren eta haren lurraldeen pluralismoa eta askotarikotasuna. Baina, hala eta guztiz ere, Historia bakar bat idaztea lortzen du, bost tomotan. Hori da bere erantzuna, ez teorikoa, praktikoa baizik.

Tamalez, orain ez dugu astirik geuk, hemen, eztabaida tekniko bati ekiteko, Euskal Herriaren Historia oso bati ekiterakoan ditugun zailtasun teknikoek (asko dira!) buruz jarduteko. Eta horrela, bost tomo horiek irakurtzeko gomendioa eginez, aurrera segituko dugu.

### III

Ez dugu eman orain arte liburu horren izenburu osoa bere jatorrizko hizkuntzan. Hauxe da: *Histoire générale du Pays Basque*, Donostia: Elkarlanean, 1998-2005. Bistan denez, jatorrizko hizkuntza frantsesa da. Eta hori, Hegoldekoentzat, oso bitxia da. Ez dugu esan, bada, ikuspuntu abertzalea dela liburuaren giltza nagusietako bat? Areago, euskal gazteriarri eskainia dela? Arazoa oraindik larriagotu egiten da ikusten dugunean frantsesez argitaratu bezain laster, eta Hegoaldean zabaltzeko helburuz, hasi zirela liburu horretako tomoak itzultzen... gaztelaniara<sup>7</sup>. Eta euskara, zer? Areago, denok dakigun bezala, Ipar eta Hegoaren arteko batasunean sinesteko dagoen arrazoi bakarra, berriz diot, bakarra, hizkuntza da, euskara. Euskara gabe ez legoke inongo arrazoirik zazpi euskal herrien batasunean sinesteko, bat bera ere ez. Horixe da nire uste apala, baina uste dut uste komuna dela eta ez dela beharrezkoa horren aldeko arrazoi handirik ematea, begi bistakoa baita denontzat. Beraz, nola esplikatzen da hizkuntza-hautu xeble hori?

Frantsesaren kasuan arazoia esplikatzea oso erraza da. Jakina denez Iparraldea bisitatzen duen edonorentzat, eta azken inkesta soziolinguistikoek baieztatu duten bezala, gaur egun Iparraldeko gazteriak ez daki euskaraz: ditugun datuen arabera, 2001ean Iparraldean 3.495 gazte euskaldun zeuden (gazteriarren % 12,2)<sup>8</sup>. Beraz, mota horretako liburu bat, hau da, publiko zabala eta gaztea nahi duen liburu bat, ez teknikoegia baina bai oinarrizko ezagutza batzuk eskatzen dituen liburu bat, entretenimendukoa ez den liburu bat hain juxtu ere, Iparraldean euskaraz idaztea, irakurleak ez izateko apustu bat egitea da. Hots, Iparraldean Historiako liburuak euskaraz idaztea norbere burua inpotentziara eta isiltasunera kondenatzea da. Tristeia izan daiteke, baina hala da. Beraz, liburuaren oinarrizko asmo politikoa da haren hizkuntza-hautua esplikatzen duena, termino honetan formulatuta: gure ideiak zabaltzeko, irakurleak izateko, ezinbestekoa da frantsesez idaztea. Paradoxikoa bada ere, nire ustez abertzaletasunak eraman zuen Manex lan hori, zehatz-mehatz hori, frantsesez idaztera. Zailagoa da, aldiz, ulertzea zergatik hautatu zen gaztelania Hegoaldean zabaltzeko hizkuntza gisa. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, behintzat, argi dago, teorian behintzat, 1979ko autonomia-estatutua indarrean jarri zenetik, Eusko Jaurlaritzaren menpeko hezkuntza-sistemari esker, zati handi-handi batean nahikoa gaitasun lortu duela mota horretako Historiako liburu, dibulгатibo baina era berean exigente bat irakurri ahal izateko, eta euskaraz irakurri ahal izateko, gaztelaniaz bezain erraz. Datu pare bat emango dugu: Hegoaldean 146.772 gazte euskaldun daude, alegia, EAeko gazteriarren % 49,3 eta Nafarroakoaren % 16,4<sup>9</sup>. Kontuan har dezagun, gainera, printzipioz mota horretako liburuak irakurtzen hasten direnak ikaslerik onenak izandakoak direla, hots, kultura-kezka nabarmenak dituztenak eta, beraz, kalifikazio aski onak ateratzen dituztenak. Beraz, teorian badugu euskaraz argitaratu ahal izateko oinarri aski zabal bat. Teorian behintzat<sup>10</sup>.

---

7. I. eta II. tomoak osorik itzuli ziren; gainera hirurak gaztelaniazko III. tomo bakar batean «sintetizatu» ziren; funtsean frantsesezko III. tomoa da gaztelaniaratu gabeko testu nagusia.

8. Iturria: *Euskararen Datu Basea*

<<http://www.soziolinguistika.org/edb/index.php?erakus=erroa&erro=2>>. Definizioei dagokienez, *gazteak* 15-24 urte artekoak dira; *euskaldunak* euskara «ondo» ulertzen eta «ondo» hitz egiten dutenak.

9. Idem. Herrialdekako batuketak neuk egin ditut.

10. Euskal Herriko gazte euskaldun guztien % 2,3 baino ez dago Iparraldean, hots, 150.267tik 3.495 lagun. Bestalde, EAeko gazteen erdiak (% 49,3) euskaldunak dira. Iturria: *Euskararen Datu Basea*.

Baina ez dirudi Elkar argitaletxeko arduradunek teoria horrekiko fede handirik dutenik. Bi arrazoi egon daitezke, beharbada, hautu horren oinarrian. Lehenengo eta behin, merkatua. Ez daukat daturik, baina badirudi ez nabilela oso erratuta esaten badut gaztelaniazko liburuak euskarazkoak baino gehiago saltzen direla maila guztietan. Historiako liburuak ez dirudi, inondik inora, arau hori hausten duten bakanetakoak direnik, alderantziz, nobela historiko erraz eta entretenigarrietatik hasita liburu akademiko konplexuenetara, dibulgazioko lanetan barna, kasu guztietan, beti, euskaraz idaztea salmenta gutxiago izateko aukerak handitzea da. Eta, jakina, Elkar argitaletxe komertzial bat da, ez erakunde publiko bat kulturaren aldeko dirua gastatzea bere aurrekontu arruntaren barruan koka dezakeena. Beraz, asmoa baldin bada argitalpen komertzial bat egitea, publiko zabalari begira, gaztelania hautatzea ia-ia ezinbestekoa da.

Ildo berean, hots, merkatuak agintzen duenari begira, ziur aski gaineratu behar-ko litzateke, handik eta hemendik entzuten ditugun azterketa guztien arabera, gazteek oso liburu gutxi irakurtzen dituztela. Areago, gutxi irakurri baina, ziur aski, gutxiago erosi, mota honetako liburuetan behintzat. Alegia, merkatu nagusia oraindik ere adin batetik goragoko jendearen artean dago, horiek baitira horrelako liburuak erosteko ohitura, eta irakurtzekoa ere hainbat kasutan, dutenak. Eta, jakina ere, erosle/irakurle horiek abertzaleak izan daitezke, baina euskararekiko ezagutza-portzentajeak izugarri jaisten dira gazteagoen aldean. Beraz, erosle eta irakurle potentzialek gaztelaniaz nahiago dituzte horrelako liburuak.

Gorago aipatu dugun bigarren arrazoa erraztasunarekin lotuta legoke. Gordinki esanda: oraindik ere askoz ere errazagoa da liburu tekniko bat, Historiakoa adibidez, frantsesetik gaztelaniara itzultzea, frantsesetik euskarara baino. Errazagoa eta, baita ere, merkeagoa, jakina. Areago, askoz ere errazagoa izango zen Manexentzat berarentzat ere frantsesetik idaztea, euskaraz baino. Uste dut hau faktu hutsa dela, polemikarako bide txikia ematen duena. Beraz, zertarako hartu mila eta bat neke, mila eta bat gastu eta buruhauste euskaraz egiten, irakurlerik ez badago, ezta eroslerik ere, ez Iparrean ez Hegoan?

Galderaren erantzuna abertzaletasunean aurkitu behar da, inon aurkitzekotan. Soilik abertzale direnak, eta oso abertzaleak gainera, dira gai, gaur egun, horrelako baldintza kaskarrei buru eginez Historiako liburuak euskaraz idazteko. Hau da, beharrezkoa da erabaki militante bat.

Zer esan nahi ote dut, bada, Manex abertzale epel bat izan ote zela? Ez, ez da hori iradoki nahi izan dudana. Aitzitik, gorago esan dudana bezala, abertzaletasuna da frantsesaren alderako hautua funtsean espikatzen duena, baina horri gehitu behar diogu behin hautu hori eginik, gainera, erosoena zela baldintza praktikoei dagokienez. Horrek, nire irudiko, Iparralderako balio digu funtsean; Hegoaldean, berriz, funtsezko arazoa itzulpen bat izatean datza. Alegia, tamaina horretako liburu bat Hegoaldean euskaraz argitaratzeko jatorrian euskaraz idatziko duen egilerik aurkitu behar da, bestela oso zaila da<sup>11</sup>. Baina horretaz uste dut ondoren mintzatuko den Joseba Intxaustik emango digula argitasun gehiago.

---

11. Badago salbuespenik, adibidez, Lur (*Euskal Herriko atlas historikoa* / [zuzendaria, Joseba Agirreazkuenaga; egileak, G. Meaza... (et al.); itzulpen-arduraduna, Josu Zabaleta]. — Euskarazko ed. — Donostia : Lur, 1997, eta *Historia unibertsala* / [zuzendaria, Antonio Rivera; egileak, José Angel Achón... et al. ; itzultzaileak, Miren Arratibel... et al. ; koordinazioa, Josu Zabaleta]— Donostia: Lur,

Bada, gainera, beste eragile bat, oraindik gutxi ikertu duguna: ezagutza akademikoaren beharra, alegia, mundu akademikoan, unibertsitatean, Ipar zein Hegoan, zure lana ezagutua eta ondo baloratua izateko beharra. Horri dedikatuko diogu hurrengo atala.

#### IV

Topikoa da esatea Euskal Herriak ez duela unibertsitaterik izan duela oso gutxira arte, eta horrek esplikatzen duela gure hainbat arazo, horietako bat, adibidez, historialari abertzaleen mitozaleetasuna eta prestaketa akademiko eskasa. Hori egia den ala ez, ez dut gaur eta hemen eztabaidatuko. Bai, ordea, topiko horrek itzelezko pisua duela gure gainean, hots, Manex bezala beren burua, neurri batean edo bestean, jite batekin edo beste batekin, nolabait historialari eta nolabait abertzale aldarrikatzen duten guztion artean. Adibidez, Manex bera.

Baina arazoa modu gordinago batean esaterik ere badago, adibidez, hauxe da faktua: euskal abertzale izatea oso txarto ikusia dago Frantziako eta Espainiako giro unibertsitari eta akademiko ia-ia guztietan; oso txarto ikusia, ez pittin bat txarto, eta oso txarto ikusia bai lehen, bai orain eta, tamalez ia ziurtasun osoz, bai gero ere.

Hori Espainian eta Frantzian, baina Euskal Herrian? Bada, neuk esango nuke berdin antzera, alegia, gaur egun Espanian *konstituzionalistak* eta Frantzian *errepublikanoak* izenen bidez ezagunak direnak Euskal Herriko unibertsitate eta giro akademikoetan nagusi diren neurrian, euskal abertzaleak oso txarto ikusiak direla, hala nola, adibide erraz bat ipintzearren, musulmanak oso txarto ikusiak diren Estatu Batuetako unibertsitateetan. Jakina, gauzak ez dira izaten zuriak edo beltzak, eta mila eta bat egoera partikular aurki daitezke beti, baina joera orokor bati buruz ari naiz, adibidez, Max Weberrek entsegu entzutetsu batean XX. mendearen hasierako Alemaniak deskribatu zuen egoera batez:

Halabehar hutsa da, beraz, bizitza akademikoa. Ia ezinezko gertatzen da habilitazio posibleari buruz orientabide eske datorren gazteari aholkatzeko erantzukizuna onartzea. *Judua bada, lasciate ogni speranza* erantzun beharko zaio, noski. Baina, kontzientziak, *judua ez bada ere*, galdetu egin beharko zaio: “Zuk uste duzu ozpindu eta usteldu gabe jasan ahal izango duzula urtez urte zure aurretik erdipurdiko bat bestearen ostean pasatzea?”<sup>12</sup>

Max Weberrek, beraz, garrantzi itzela ematen zion halabeharrari (zoriari) pertsona batek unibertsitatean izango zuen ibilbide profesionalean, baina, aldi

---

1999) edo Ibaizabal (*Euskal Herriko historia* / Susana Truchuelo García, Marta Truchuelo García ; [itzultzailea, E3]— Euba: Ibaizabal, 2003) argitaletxeek argitaratu dituzten eskuliburuak, edo Nabarralde elkarteak Antso III. Nagusiari dedikatu zion liburua (*Euskal Herria XI. mendean: Antso III.a Nagusiaren erregealdia (1004-1035)* / Manex Goyhenetche... [et al.] ; euskaratzaileak, Juan Joxe Petrirena, Joxemari Sestorain— Iruñea: Pamiela, 2004), edo Altafayllak atera zuen Tafallako historia elebiduna (*Tafallaren historia* / Jose Mari Espartza Zabalegi ; [itzulpena, Jose Mari Nuñez, “Itzuliz”]— Tafalla: Altafaylla Kultur Elkarte, 2001). Izango da besteren bat ere, baina oro har salbuespenak direla esango nuke, jarraipen garbirik gabeak.

12. Weber, Max: “Zientzia, lanbide bokazio” in *Politika eta Zientzia lanbide*, Bilbo: Klasikoak, 2007, 131.-132. or. (Euskaratzailea Pello Kortabarria) (Jatorrizko argitalpena, 1919). Azpimarra neurea da.

berean, argi eta garbi adierazten zuen bazirela kategoria sozial batzuk besteak baino zailtasun askoz ere handiagoak zituztenak aurrera egiteko eta unibertsitatean lanpostuak eskuratzeko, adibidez, oraintxe ikusi dugun bezala, juduak.

Eta berriz ere esango dut, ez ditut gauzak bere onetik atera nahi, ez dut orain eta hemen eztabaidatu nahi horrelakorik gertatu izan den Euskal Herriko unibertsitateetan azken hamarkadetan, ez, hauxe bakarrik da nire asmoa: seinalatzea euskal abertzaleek presio handi bat sentitu izan dugula gure gainean gure abertzaletasunaren kausaz. Presio hori bi bidetik gutxienez joan izan da: bata, etengabe zalantzan jarri izan dela edozein historialari abertzalaren prestakuntza akademikoa, unibertsalki jakina baita abertzaleak *mito nazionalak* sortzeko, sinesteko eta zabaltzeko daukaten berezko joera irreprimiblea, eta bi, euskaraz idatzitako edozein gauza, berez, maila akademiko eskasekoa eta *mito nazional*ez kutsatua zegoela. Ohar bi horiek unibertsalki jakintzat eman izan dira, hala nola denok dakigun Eguzkia ekialdetik ateratzen dela.

Sentitu ote zuen Manexek presio hori? Zein puntutaraino? Zer ondorio izan zuen horrek bere lanean?

Argi dezadan nire ustez presio hori ez dela halabeharrez ondorio txarrekoa kasu guztietan. Alderantziz, horrek eraman dezake norberaren prestakuntza akademikoa bereziki zorroztera eta mito eta faltsukeria historikoekiko sentiberatasun kritiko berezi bat garatzera. Hori izan zen, nire ustez, funtsean Manexekin gertatu zena. Baina garbi dago, halaber, presio etengabe horrek norberaren joera eta asmoak zorrozki baldintza ditzakeela, adibidez, euskaraz argitaratzera desanimatuz, karrera unibertsitario batek ezinbestekoa baitu mundu unibertsitarioaren onespena, eta onespen hori lortzeko modu bakarra norberaren prestakuntza akademikorekiko zalantza oro uxatzea da, agintari akademikoek irakur dezaketan hizkuntza batean argitaratzera bultzatuz, hots, gaztelaniaz edo frantsesez. Nago hortxe dagoela, neurri batean ere, Manex lan historiko gehienak frantsesez argitaratzera bultzatu zuen arrazoi handienetako bat.

Presio horren kontra, halaber, oso garrantzitsua izan daiteke giro akademiko egoki bat aurkitzea, hots, oinarritzko ikusmolde batzuk partekatzen dituzten lankideak, gure kasuan, historialariak. Esan dezagun garbi: barkadadea oso kaltegarria da edozein lan akademikorentzat; aldiz, departamentu unibertsitario baten oinarria, edo ikerketa-talde baten bultzada, edo antzeko edozein egituratan bermatzea, zinez lagungarria izan daiteke norberaren gaitasunak garatzeko. Tamalez, Manexen kasuan badirudi erraldoi bakarti baten aurrean gaudela; ezaguna denez, Iparraldean ia-ia ez dago egitura unibertsitariorik, eta partikulariki historialaritzan Manex ia-ia bakarrik ibili da beti. Egia da hortxe dugula Eugène Goihenetxe (1915-1989), baina adinaren aldea gora-behera, ez dirudi harreman estua izan zutenik. Hortxe ditugu ere, adibidez, Jean-Louis Davant, Emilio Lopez Adan edo Piarres Xarritton, edo beste hainbat, den-denak aipatzea ezinezkoa delako, guztiek lan historiko baliosak egin dituztenak, baina garbi dago ez direla izan historialari profesionalak eta unibertsitate-mundutik aski urrun egon direla<sup>13</sup>. Halaber, Manexek 1984tik aurrera eskolak eman zituen Paueko Unibertsitateak Baionan duen

---

13. Piarres Xarritton EHUKo irakaslea izan da hainbat urtez, baina Filosofian, ez Historian.



adarrean, baina beldur naiz haren postu hori beti aski marjinala gertatu dela unibertsitatearen egituretan, eta denok dakigu hierarkiak (eskalafioiak) irakasle unibertsitarioen artean jokatzen duen paper erabakigarria.

Beraz, historialariak, beste edozein ikertzailek bezala, giro akademiko bat behar du inguruan bere potentzialtasun guztia garatzeko. Manexen kasuan giro horrek beti zerikusi gutxi izan du unibertsitatearekin, bai Hegoan bai Iparrean. Gai horri arreta apur bat handiagoz heltzeko beharrezko deritzot Manexen bizitzari eta lanei buruzko ohar labur batzuk eskaintzeari, esandako guztia argitutuko dutelakoan.

## V

Manex Goihentxe Ezterenzubín (Nafarroa Beherea) jaio zen nekazari-familia batean 1942an<sup>14</sup>. Uste dut esaldi hori arretaz irakurtzeak informazio aski ematen duela haren inguru soziologikoaz eta, ondorioz, haren haurtzaro eta gaztaroa gidatuko zuten baldintzez, alegia, inguru guztiz landatar batean jaio zen, familia pobre baten baitan. Ez dira aurrebaldintzarik egokienak karrera intelektual distiratsu bati ekiteko, dudarik gabe. Alderantziz, euskaldun hutsa zen ingurune batean hazirik, eskolan ikasi zuen frantsesa, eta familia pobre bateko semea izatean, eliza zen goiko ikasketei ekiteko praktikan zeukan bide bakarra. Horri ekin zion gazte-txotatik, hasieran eskola katolikoetan eta, laster, seminarioko bidea hartuta, fraide ordenatu zen, Ploermeleko kongregazioan; ziur aski bere inguru sozial guztiak horretara bultzatu zuen<sup>15</sup>.

Fraide ordenatzeaz bat (1967) atera zuen Historiako lizentzia Tolosako unibertsitatean (1969) eta irakasle gisa hasi zen lanean ordenaren ikastetxeetan. Beste garai batzuk izan baziren, Azkuerenak adibidez, agian horretan amaituko zen Manexen bizitza, baina 60etako Frantziak laster aukera berriak eskainiko zizkion engaiamendu sozial, politiko eta kulturaletan sakontzeko fraide hark erakusten zuen grinari. Ezen hasiera-hasieratik erakutsi zuen kulturaren euskaltzale gisa eta politikan abertzale legez konpromiso garbiak hartzeko deliberoa: politikari dago-kionez Enbatan sartu zen buru belarri eta, hura debekatua izan zelarrik, EHASen<sup>16</sup>

---

14. Hemendik aurrera aipatuko ditudan datu biografiko guztiak hemendik hartuak dira: DAVANT, J.L. *Manex Goihentxe (1942-2004)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritzak, 2006, *Bidegileak* bilduma. Iritziak, jakina, neureak dira.

